

## Arratia-Nerbioi eta Bizkaiko klubentzako txapelketak martxan

10. orrialdea

## Itziar Zabala txapeladun

Urri bigarrenaren 15ean Gasteizko Ariznabarra kiroldegian jokatu zuen Euskadiko eskalada txapelketan Itziar Zabala dimoiztarrek txapela lortu eban 18 urte arteko kategorian. Pozik hartu eban txapela Zabalak, igaz ezin izan ebalako Euskadiko txapelketan parte hartu, Europako beste proba bat eukalako. Zemendiaren 12 eta 13an ostera, Frantzia jokatu eta Europako txapelketan parte hartuko dau eskalataile dimoiztarrek. **11. orrialdea**



## EuroCamerata orkestrak kontzertua emongo dau 3an Igorren

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 151

2011ko zemendiaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Trukea bultzatuko dau mankomunidadeak

Trukea bultzatzeko bere webgunean [arratiatruke.org](http://arratiatruke.org) txokoa zabalduko dau Arratiako Udalen Mankomunitateak.

**H**an, erregistratu ostean, gauzak saldu, trukatu, oparitu, itxi eta konpartitu ahal izango dira. Honegaz, mankomunidadekoak espero dabe gauzen erabilpena luzatzea larregizko konsumoa murrizteko eta zabor gutxiago sortzeko. Izan be, ekimen hau Hiri Hondakinak Prebenitzeko Planaren barruan dago.

Honegaz bultzatzen diran ekintzak, baina, kasu honetan erakundearen babesia izan arren, Desazkunde eta beste mobimentu antikapitalista batzuk aldarikatu eta praktikan ipini dituenak dira. Argentinan, barbarako, 2000 urtean Fernando de la Ruaren *corralito*aren ondorioz, truke klubak eta denpora bankuak herrialde

osoan zabaldu ziran, bertara hori ikertzeko joan zuen Iker Yurrebasok jakinarazo dauanez. Gaur egun, baina, ia desagertu egin dira klubok.

Denpora bankuen barri Matxalen Legarreta EHUko soziologia irakasleak emon deutso begituri. Irakaslearen ustez, erakundearen premina daukie aurrera ateratzeko, eta nahiz eta diruan ez oinarritutako sistema alternatiboa eskeintzen daben, ezin dabe sistema kapitalistea ordezkatu eta horren barruan kokatzen dira denpora bankuak.

Dana dala, tokio honek gauzak merke lortzeko modu interesgari bat eskeintzen dau hainbat erabilzaile potentzialaren ustez.

**8. eta 9. orrialdeak**



Mankomunidadeak martxan ipiniko dauan webgunea.

### DIMA

## Udalaren zorra 2.440.000 eurokoa da

Dimako Udalak etxe guztietara bialdu dau daukan zorraren barri. Honen esanetan, aurreko korporazioak itxi daukan zorra 2.439.315,32 €koa da. Dimak 1.313 biztanle ditu eta biztanleko zorra beraz 1.858 eurokoa da. Hau dala eta BEGITU Rafa Ugalde Dimako alkateagaz egon da. **5. orrialdea**



### BEDIA

## Etxebizitza tasauak zozketan

Bediako Udalak Errekaondoko promozinoko azken lau etxebizitza tasauak zozketatuko ditu. 153.258 euroko prezioa daukie eta modu berean, garajeak be eskuratu ahal izango dira. Zemendiaren 14an amaituko da eskariak egiteko epea eta Bedian bizi diranen eskaerak ez bada betetzen esleitu beharreko etxebizitzaren kopurua heritik kanpokoen eskaerakaz osotuko da. **6. orrialdea**

### ARRATIA

## Lorak kanposantuetan

Domusantu egunean, tradizioari jarraituz, asko izan ziran kanposantuetara hurreratu ziran arratiarrak. Gurean, lur emoteak errasteak baino gehiago dira eta eleiza katolikoaren tradizioaren barruan egiten dira.

Domusantu egunean jentek bisitua egiten deutse senideen hilotzari. **6. orrialdea**

mugarri  
diseinu integrala

**Etxeen gestino integrala**  
proiektuak eta diseinua • obrak eta erreformak  
altzariak eta dekoraziorako konplementuak



Hiru hilabeteko  
finanziarazioa  
interes barik

Garbe, 2 • 48140 • IGORRE • tlfno 94 631 51 03 • mugarri@mugarriarkitektura.com • www.mugarriarkitektura.com

## KANTU HERRIKOIAK

ASMENDIKO  
ETXAGUNE

Asmendiko etxagune beti biharrian, ota kargiaz dua Gorputz egunian.

Nahi izin Asentzio nahi izin Paskua, zorroa buruen hartute errotara dua.

Asmendiko etxagunek pasau den urtian, txarri lodi bat ein deu familien galdian.

Arroa bi sendaro pisitu zanian, urte bi paseu eta urdeie etxian. Ai haiek koipetxuek zirudien artian.

Iturria: Eduarda Bilbao Etxebarria (Dima 1905-Arantzazu 1988).

1982an, Arantzazun, Karmen Bernaolak jaso. (Labayru Ikastegiko Ahozko Artxiboa).

*Asmendiko etxagune*

$\text{♩} = 104$

As - men - di - koe - txa - gu - ne be - ti bi - ha - rri - an, o -  
ta kar - gi - az du - a Gor - putz e - gu - ni - an. Nahi  
i - zin A - sen - tzi - o nahi i - zin Pas - ku - a, zo -  
rroa bu - ruen har - tu - te e - rro - ta - ra du - a.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**Urri bigarrenaren 31tik**  
**zemendiaren 6ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**Zemendiaren 7tik 13ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**Zemendiaren 14tik 20ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



bbk



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Clara Luja eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.400 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Guardasola



"Euria daragoionean guardasol barik, derrigor busti behar!". Euritakoari guardasol (guardásola) esaten jake Arratian (aterki, batuaz) nahiz eta literalki, hondartzarako tresna babesgarria izan ("sombilla") eta ez euria danerako. Gaurko egunean, guardasol modernoak tolesgarriak dira. Honeei guardasol-toko esaten deutsee gure nagusiak.

## ERETXIA

### Garai barria heldu da

**P**oz handiko unea da euskal gizartearentzat. Azken asteak bizi-biziak eta lan handikoak izan dira, eta orain, gaur, etapa barri bat hasten da.

Hilaren 17an egin zan Nazinoarteko Konferentzia, Lokarrik beste hainbat erakunde internazionalak antolatuta, normalizazioa, gardentasuna eta erabateko inklusio politikoa ezaugarri dituan egoera lortzeako beharrezkoak diran osagaiak partekatze egin zan, zeina eragile sozial eta politikoen arteko ekarpen eta hausnarketa prozesu kolaboratibo lege aurreikusten zan. Nazinoarteko liderrak bertan irakurritako adierazpenak oihartzun handia izan eban: ETAK berak be egun gitxitara erantzun eban adierazpena onartuz. ETAREN indarkeria amaitu da.

Orain ETAREN indarkeriaren amaiera nork lortu dauan aldarrikatzeko lasterketea hasi da. Ez dago lortutakoa azalduko dauan persona edo arrazoi bakarra: euskal gizarte guztiaren lorpena da. Indarkeria, bazterketea, blokeoa eta inkomunikazioa gailentzen ziranean, euskal gizarteak itxaropena bizirik mantentzen izan dau. Sasoi

### LOKARRI

txarretenan euskal gizarte bere indar guztiakaz tematu da bakea lortzeako, indarkeriaren amaiera eta alkarriketea defendatzen dauan erdibideko erraila mantenduten jakin izan dau.

### Geure historiaren zero puntua

Sasoi historiko baten aurrean gagoz. Etapa barri bat hasten da. Arrikutsua izango litzateke hemendik aurrera dana erraza izango dala baieztatzea. ETAREN indarkeriaren amaieragaz ez dira arazo guztiak amaitzen baina indarkeriaren amaieragaz errazagoa izango da konponbideak topetea.

Orain dala urte bitik hona bake prozesu itzulezin baterako baldintzak defendatzen ditu Lokarrik: ETAREN indarkeriaren amaiera eta egun lege kanpo dagoan ezker abertzalearen legalizazioa. Behin

indarkeriaren amaiera lortuta, Sor-turen legalizazioa ez da atzeratu behar. Hala segurtasun, askatasun eta bardintasun egoera lortuko litzateke alderdi politiko guztientzat, aukera handien momentu honeri aurre egitea ahalbidetuz etorkizuna eta bizikidetzea eraikiteko.

Hain zuzen be, Lokarriren helburua bizikidetzea bameratzaile baten eraikuntzarako erdibideko erraila erakutsiko dauan eta lortutakoa defendatuko dauan espazio soziala mantendutea da orain. Egun honeetan egiazatu ahal izan dogun moduan, porrotean eta irainean oinarritutako amaiera bat gura dabenen eta indarkeriari esker haren amaiera lortu dala sinestaz gura deuskuenen tensioaren menpe topauko doguz geure buruak. Gizarte honek daukan erronka nagusia, hain zuzen be, indarkeria-ezaren, giza eskubideen, alkarriketearen eta berradiskidetze sozialaren bidea seinaletea da, bizikidetzea helburu izango dauana.

Geure historiaren zero puntua gagoz. Orain da momentua danon artean bat egiteko, egoerak merezidu dauan moduan jokatu eta etorkizuna zentzuz kudeatu. Ez da erraza izango, baina euskal gizarteak honaino iristea lortu badau, baje zoragarri honen etapak gainditzea be lortuko dogu.

### Poza, esker ona, betetasuna eta konpromisoa



### ITZIAR ASPURU

Bakearen Aldeko

Koordinakundeko kidea

**E**zertan pentsetan hasi baino lehen, ETAREN indarkeriaren zama amaitu dala konturatzean gure poza agertu gura dogu, merezidu dogu eta. Amaitu egin da indarkeriaren zama gure gizartearen gainean, eraso sufridu dabene edo sufridu leikiene biktimen gainean, alkarbizitzaren gainean, politikaren gainean eta pistola baten, lehegailu baten, klean iraina, dei edo pintada baten mehatxutik urrun izan behar diran alkarriketen gainean.

Saiatuko gara sentiduten dogun eta gure gizartearen sentiduten dan lasaitasuna ez ahazten, ze lasaitasun horren tamainak gure borondatea makurrarazo gura izan dauan terrorismoaren zamaren neurria emoten dau.

Bakean bizitea gure eskubidea izan da, baina ETAK bakarrik iragarri ahal eban. Dana dala, gogor lan eginda lortu dogu hori gauzatzea. Ez da erraza izan, baina lortu egin dogu. Nahiz eta gure gizartearen bildurra, ardurabakokeria eta izugarrikeriaren legitimizazioa egon dan, nahiz eta gure iraganaren

zati bat dala-eta ezin garan harro egon, zorionez lortu dogu ETARI errefusa gehiengoaren aldarria izatea. Eta hauxe da bakeak irauteko bermerik handiena.

Horregaitik eskertu gura dodaz ikusiez in eta epel izateari itxi eta gure herrietan erresistentzia izatera ausartu ziranak, gizarteagaz konprometiduz, gure duintasuna berreskuratu gengian saiatuz eta biktima bakotxagazko solidaridadea agertuz.

Pena daukat, halanda be, ebatzi hau ez zalako hartu orain dala hainbat urte, sufrimentu handia ebitauz. Gogora jatortaz ETAREN indarkeriaren biktimen arpegiak, eta indarkeria inguratzen zitan

basakeriaren koldarkeria. Urte honeetan guztietan, hareengana hurreraterakoan, senitartekoai egindako indarkeriaren bidez ereindako gorrotoari ia antinaturala dan hesi bat eraigi dabela ikusi dot. Egunen baten, haren jarrearen garrantzia onartuko dogu. Pozik nago, ez dabelako barriro bizi izango beren tragedia, tragedia barrietan. Ez doguz ahaztuko.

Beti esan dot gure gizartearen alkarbizitzaren etorkizuna, ETAREN indarkeriaren amaieraren araberakoa izango zala. Eta pozez betetzen gaitu ETAK, indarkeriaren amaiera iragartzeaz gainera, herriarren borondate demokratikoa usurpatzeari uko egin izanak. Hau be, bakeak irauteko bermea da.

Etorkizunari begiratu behar deusagu eta gure pluraltasunaren errespetutik alkarbizitza berreskuratzeko konprometidu. Eta amaiera honegaz berreskuratzen hasi garan duintasuna mantenduteko ahalegin handia egin eta eskatu behar dogu egia ahalik eta argien iteko, justiziari, kontetako modu duinari, eta danontzako zan eraso sufridu ebenai errekonozimenduari uko egin barik. Indarkeriaren ostean, ezin dogu injustizia gehiagorik jasan.

Indarrak barriz gagoz eta gizarteak honaino heltzea lortu badau, etorkizun duina be sortzeako gauza izango da.

**LUMATUTEN****Kulturaniztasuna eta kulturartekotasuna****JON URUTXURTU**

**A**zken urteotan nagusitzen dabilan globalizazioak itzelezko aldaketak eragin ditu mundu mailan zein gure hurreko inguruan, eta Arratiako herrietara begiratzea baino ez dago.

Egoera larrian bizi diranak, bizimodua aurrera ateratzeko, euren herrialdeak itxi beharrean aurkitzen dira, lurralde garatueta-  
ra etorri. Gauza bera egin behar izan eben orain dala urte gitxi euskaldun askok. Beste kasu batzuetan, gure lurraldean bertan bizi diran batzuk, urietan baino baldintza errazagoak aurkitu izan dabez herrietan eta bertara etorri dira bizitera. Ondorioz, inmigrazioa —kanpoko zein barrukoa— azken urteotan ugartu eta handitu dan fenomeno da. Horrek guztiak leku berean hainbat kultura alkarbizitza ekarri dau, kulturantzatasuna.

Kulturak eboluzionau egiten dabe eta eboluzino hori komunitate desbardinaren arteko hartuemonen bidez emoten da, hartuemon horreek izaera desbardina euki daikielarik. Gaur egun, kulturartekotasunaren aldeko apostua egiten da. Kulturartekotasunak kulturen arteko erlazino, interakzioa adierazten dau. Kulturartekotasunaren arabera kultura guztiak errespetua merezidu dabe, ez dago bata bestearen gainetik eta norberarenari eutsiz, beste kulturak hartuemonak izatea positibotzat hartzean da.

Mundu globalizau honek, eta euskalduna kultura minorizaua eta ahula izanik, gure identitate zeinuak mantenduteko ahalegin handiak egitea eskatzen deusku. Hau guztiau esaten dot, azken hamar urteotan Arratia aldeko herriak biziten dabilzan aldaketak dirala eta: ez ete gabiz galtzean gure izaerearen oinarriak? Ez ete gabiz ahazten kulturartekotasunaren lehen atala, hau da, geure kultureari eustearena? Geure nortasunaren oinarriak mantenduz, kulturen arteko bizikidetzeta eta integrazioa bizi daigun!

**ZERTZEAN****ILLART GUMUZIO****1**

Kanpainan sartuta dao hemen estadia gehienek azaroan daukie burua eta Euskal Herrira begira mundua jada zeozer eiteko bagendun ordua!

**2**

Dozenerdi kanpoztar batuz banan-banan Donostin euki eben buru Kofi Annan eginbehar zehatzez oinarri bat eman iraultza suabe-suabe prestatu zuten han.

**Gaia jarrita: "Gure egoerea"****3**

Jarduera eteten agertu zan ETA holan herria jarri zan pozez beteta nahiz eta batzuk gura mendeku, vendetta aupa danok! Aukera bakarra dao eta!

**4**

Gatazka hau denbora luzez jaku jardun nork pentsau zauen holan ginela gaur egun nahiz ta ondoan falta famili zein lagun dan-danok alkartuta bidea ein daigun.

**5**

Oin egingo dauriez milaka bilera berbagai: barkamena, presoak etxera. Pauso txikerrak baina beti be aurrera zeozer lortuko dogu guztiok batera.

**6**

Euskal Herriak hartu dau bere bidea nonork entzun dau eta herrian berbea geure etorkizuna danez dotorea: herri askea eta gatazka gabea!!!

**BEGI TXINDORRA**

**H**ara! Badakit zertarako zan birramama sorginaren zorroan aurkitu neban Verako pimentoia. Areatzako jai batzordeko txosnan kartel hau ikusi dodanean konturatu naz.

Bai ba! Berak be antojua eutsan kartelego olagarro klaseari, ta horregaitik pimento majikoa eroian zorroan: apur bat bota, Tronpello olagarro galizimux! Ta praust! Ukututzar erako olagarroa galiziar erako bihurtuta!

Olagarro, olagarro! Kontuz gurean, aldean daroagu pimento majikoa ta!

**MAITE ARTABE**

**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika Inplanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39

Naiztoa Zerbaita 110  
R.P.S. 21/06

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**

Isiabi  
Martín Gorostiza

Ubideratzeak  
Lurrerauzketak  
Baso pistak  
Ur Putzuak  
Era guztietako hondeaketak

Tel. 607 272 424  
610 271 128  
Tel/Fax: 94 433 22 28

Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
e-mail: margoiza@euskolnet.net



## DIMA

# Dimako Udalak bi miloe eta erdiko zorra dauka

Dimako Udalak etxe guztietara helarazo dau udalak daukan zorraren barri. Honen arabera, aurreko korporazioak itxi dauan zorra 2.439.315,32 €koa da; fakturak, diru laguntzak eta epe laburreko maileguak 1.566.510,27 euro eta epe luzeko maileguak eta Udalkutxakoa 872.805,05 euro diralarik. Dimak 1.313 biztanle dituan, zorra biztanleko 1.858 eurokoa da.

### Erredakzioa

"Bistan da, egoera ekonomikoa oso larria dala, eta gure zeregin nagusia hurrengo lau urteotarako egoera hau konpontzea izango dala. Gastuak murriztu egin behar dira eta herritar guztiok igarriko dogu (Musika eskola, jubiladuentzako laguntzak, argiteria publikoa/farolak, osterantzeko diru laguntzak...). Ahaleginak egingo doguz diru sarrerak handituten, baina egoera ekonomiko orokorrak ez dau laguntzen" inoan Dimako etxeetara zabalduko oharra.

Zelan egingo deusan aurre zorrari eta zenbateraino igarriko daben heritarrak jakiteko begitu Rafa Ugalde Dimako alkateagaz egon da. **Horreri aurre egiteko zer pentsau dozue?**

Sasoia txarra da, baina printzipioz hitzorduak eskatu doguz bai Foru Aldundian eta bai Jaurkitzen gure egoera azaltzeko. Ez dakit

da. Ibilgailuen eta eraikuntzen gainekoak, Bizkaiko herrien parera heldu arte hurrengo urteetan.

Hori alde batetik, eta bestetik murrizketak egongo dira diru laguntzetan. Hasteko, musika eskolako gurasoai urtailean jakinarazo jakien aurten udalak diru gitxiago ipiniko daua, ezin daualako dana ordaindu. Inbersino handirik be ezingo dogu egin. Mantentze lanak bai, herria txukun eukiteko. Baina obrarik egiteko ez daukagu dirurik eta ezin dogu bestelako krediturik eskatu.

**Zenbat diru erabiliko dozue zorra pagetako? Ze zati pentsetan dozue pagetea?**

Hor aurreikuspenik egitea sano gatxa da. Printzipioz gure helburua da hemendik aurrera zorrik ez ixtea. Hau da, 2012ko aurrekontuetan zorrik ez sortzea. Atzetik daukagun zorra urrietan hasi ginan ordaintzen, gauza txiki batzuk. Apurka-apurka ordaintzen

**tetik zorra eta hori. Gauza bi horreek izango dabe eragina udalak sortzean dituan lanpostuetan?**

Oraitxe udalak behargin bat gitxiago dauka. Funtzionarioa zan bat jubilau egin da eta horren ordezkorik ez da hartu.

**Ez dinot bakarrik udaletxean bertan, obrak egiteko, ikastaroak emoteko be kontratau egiten da jentea.**

Ikasturte honetan egin dogun eskeintza ikastaroak dirala eta, orain arteko ohiko eskeintza izan da. Diru laguntzak apur bat murriztu egin doguz, lehen diru-laguntza bazan % 50koa % 40ra bajatu dogu, baina betiko eskeintza egin da. Horretan ahaleginduko gara betikoa eskeintzen.

Baina murrizketak egin beharko doguz beste leku batzuetatik. Obra handirik ezin da egin. Ikusten dogu herrian beharizan handia dagoala eskolegaz. Eskolea egin

zan 100 ikaslerentzat eta orain 130 edo dagoz eta ikasle batzuk barrakoietan dagoz. Hor daukagun arazoa da eskolea erreka bazterrean dagoala eta gaur egun ezin da eraiki erreka bazterretan. Ingurumen Saileko baimena behar da. Hezkuntzak berak egingo leuke egin beharreko obrea eskolea zabaldu egin beharko litzateke eta hor dagoan zubia bota. Obra horretarako proiektua eginda dago, baina 500.000 euro inguruko aurrekontua dauka eta udalak ezin dau hori ordaindu.

Holan Ingurumen Sailak obra hori egin arte ez dau baimenik emoten eta baimen hori ez badaukagu Hezkuntzak ezin dau eskolea egin.

**Orduan hori gelditu egingo da, ezta?**

Bueno, atek joko doguz. Eskolea lehentasunezkoa da.

Udal zergak igo eta

diru laguntzak murriztu

dabez Diman 2012an

Eskoleak lehentasuna

dauka alkatearen

eretxian

## Informazio okerra El Correo eta Garan

### Erredakzioa

El Correo eta Gara egunkarietan, Dimako Udalak Gorbeialdetik urten behar izan daualako informazio okerra agertu zala salatu dau Dimako alkateak. "Joan dan urriaren 20an, El Correek argitaratutakoaren arabera, Bilduren bozeroaleak Batzar Nagusietan adierazo eban Dimako udalak, daukan zorrak eraginda, Gorbeialde erakundetik urten behar izan daua.

Informazio hori ez da egiazkoa, inondik inora be; Dimako udala ez da eta sekula Gorbeialdea erakundetik urten" dino alkateak.

Gara egunkariak, barriz, urri bigarrenaren 25ean, honako hau argitaratu eban: "*Dima compró terrenos kársticos para salvar la cueva de Baltzola y el puente de Jentilzubi de cara al futuro. Sin embargo ahora no puede mantener la escuela de música y se ha visto obligado a salirse de Gor-*

*beialdea*". Eta alkateak adierazo dau horrek ez daukala zerikusirik udalak daukan zorrarez. "Dimako Udalak Baltzola eta Jentilzubi inguruak donazino baten bitartez eskuratu zituan, eta donazino horretatik eratorriko gastuak 800 eurokoak izan ziran. Makrostruktura handirik be ez da egin herrian".

Barri horren iturburua ez dala Dimako udala izan be argitu gura izan dau Rafa Ugalde Dimako alkateak.



Dimako Udala.

lagunduko deuskuen, baina behintzat azalduko deutsegu gure egoera. Beste aldetik, egin daitekean bakarra holango egoeratan garrikoa estututea da. Zergak apur bat igon egingo doguz, ze azken urteotan ez da udal zergarik igon eta Dima arlo horretan Bizkaiko herriak baino beheratuago ibili

joango gara, baina astiro izango da. 2012an 2012ko gastuak aurre egingo deutsegu eta aurretik dagoan zorretik zenbat kenduko dogun ezin dogu jakin. Diru aldetik oso txarto gagoz.

**Alde batetik krisia dala eta aurrekusten diran diru laguntza murrizketak eta bes-**



**BEDIA****Errekaondoko promozinoko azken lau etxebizitza tasauak zozketatuko ditu udalak****Erredakzioa**

Bediako Udalak Errekaondoko promozinoko azken lau etxebizitza tasauak zozketatuko ditu. Logela biko pisuak dira, 153.258 euroko prezioa daukie, eta trastelekua be badaukie. "Era berean, garajeak be eskuratu ahal izango dira, modu independentean, gehienez 19.200 euroko prezioan" jakinarazo dabe udaletxetik.

Eskaerak aurkeztuteko epea zehazkiaren 14an amaituko da. Arratiako mankomunitateko udalerrietan, Galdakaon eta

Bizkaiko gainerako udalerrietan errolatutako personak eukiko dabe aukerea etxebizitzak eskuratzeko, baina horreek guztiak hartuko dabe parte zozketan, bakarrik Bedian bizi diranen eskaerak ez bada betetzen esleitu beharreko etxebizitzaren kopurua. Zozketa egin baino lehen, eskatzaile guztiak zozketearen gaineko informazioa emongo jakie, eta, era berean, azken zozketan parte hartuko daben edo ez be jakinarazoko jakie.

Baldintza orriak eta eskabideak bedia.bizwebgunean eta udaletxean bertan dagoz eskuragarri.



Errekaondoko promozinoko etxeak.

**ARRATIA****Domusantu egunean loraz eta jentez bete ziran gure kanposantuak**

Tradizinoak eta eleiza katolikoak indar handia daukie gurean eta hildakoanako hileta errituetan argi ikusten da hori.

**Erredakzioa**

Holan, Domusantu egunean, jentez eta lorez bete ziran kanposantuak. Gurean, gainera, jentek hildakoak lurperatzea erraustea baino gurago izaten dau eta gitxi dira eleizatik kanpo lurperatzen diranak.

"Erraustea zozertxu hazi da, baina lehen beste lur emote dagoz. Urtean, hamabi inguru Zeanurin. Eta guztietan egon da abadea. Hemen tradizinoak eta eleizeak indar handia daukie. Zeberion behin, Jehovaharen lekuko bateri lur emon neutsan, baina salbuespen bakarra izan da" azaldu deutso BEGITURI Jon Ordeñana Zeanuriko lur-emoileak.

Hori dala eta, Domusantu egunean arratiar asko hurreratu ziran kanposantuetara euren senideai gomuta eta lorak erooten.



Areatzako kanposantua.

# Badatoz, badatoz...

**Aurten be lapikorik onena egiteko  
Merkalabelako txorizo eta odolosteak daukoguz**



**Saltxitxak, hanburgesak, baserriko okelea,**

**untxiak, baserriko arraultzak, artxoak...**

**MERKALABELA HARATEGIA**  
Lehendakari Agirre 15 - Igorre  
Telefona: 94 673 63 10



## ARRATIA

### Eduarne Gumuzio Kongresurako hirugarren Amaiurren zerrendetan

#### Erredakzioa

Eduarne Gumuzio (EA), Arteako zinegotzia, Amaiur koalizioaren kongresurako Bizkaiko zerrendetan hirugarren dago, Iñaki Antiguedad (ezker abertzalea) eta Jon Iñarriguren atzetik (Aralar).



Eduarne Gumuzio.

Ezker abertzaleak, Aralarrek, EAK eta Alternatibak osotuta dabilen Amaiur koalizioa zehazkiaren 20ko Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeetan izango da.

Eduarne Gumuzio zinegotzi da Artean (Bildu). 1.987an sartu zuen udaltxean eta 1.991 arte egon zen eta alkateorde bezala izan zen tarte horretan. Zortzi urteko etenaldia egin ostean, 1.999an bueltatu zuen Arteako udaltxeara, lehenengotik EAko zinegotzi moduan eta azkenengo legegintzaldi honetan Bilduko zinegotzi legez.

Gumuzio ezaguna da Arratian. Izan bezala, Arratiako Musika Eskola edota Behargintzaren sortzaileetakoa da, besteak beste.

## IGORRE

### Abenduaren 3ko ekitaldia

#### Erredakzioa

Daborduko aurtengo Euskarearen Eguna ate joka daukagu eta Igorren hasita dagoz egun horri begirakoa antolatuta. Aurten kultur eta kirol alkarrean urtea dala esan geinke, izan bezala, INBIU eguneko Lip Dub arrakastatsuan Igorreko alkarre guztiak bat eginda agertu ziran



Zuztertxu igorreztarrez inguratuta.

euskarearen alde eta abenduaren 3rako bezala alkarre guztiak batutea espero dabe Euskera Planetik. Amaia Arauzok adierazo dauanez, oraingoan pauso bat harago joan gura dabe; aprobetxatuta urte honetan alkarrean egin dan euskarearen erabilera eta presentziaren inguruko diagnostikoa abenduaren 3rako udalagaz batera hitzarmena sinatutea gura dabe, besteak beste, alkarre euskareari emongo deusien tratamendua zehaztuko da bertan. Urri bigarrenaren 27an euki eben lehenengo batzarra ekitaldiaren nondik norakoak zehaztuteko.

## ARRATIA

### Emakume talde eta talde feministen batzarra

#### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 26an, Arratiako andra taldeak eta talde feministak batu ziran Igorreko Kultur Etxean, zehazkiaren 25aren inguruko programea adostuteko. Zehazkiaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta azken urteotan, aldarrikapen horren inguruko ekitaldiak Arratia mailan antolatuta dira.

Egunean bertan izango dan alkarretaratzeaz gainera, hainbat kultur ekitaldi izango dira, andrazkoen kontrako indarkeria gait hartuta.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza estalabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

*Ametzola Landetxea*  
Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net

**bbk** =

HERRIKO BENTA  
HOSTAL  
HERRINO PLAZA  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56



## TRUKEA

# Konsumoa (eta zaborra) murriztuteko trukea bultzatuko dau mankomunidadeak

Arratiako Udalen Mankomunitateak Hiri Hondakinak Prebenitzeko Planaren barruan, Arratia-Truke ekimena abiatuko dau hileon, atzeratu ezean. Mankomunidadeko webgunean topauko dau erabiltzaileak arratiatruke.org, eta bertan, jenteak bigarren eskuko gauzak saldu, gauzak maileguan itxi, zerbitzuak konpartidu eta konsumo jasangarriagoa bultzatzeko helburua daukien beste ekimen batzuk egongo dira.

## Erredakzioa

Ekimen honegaz konsumo arduratsua bultzatu gura dau mankomunidadeak eta holan klima aldaketaren kontrako burrukan lagundu. Gainera, krisi sasoiari, dirua aurrezteko modua izan daitekeela ez dago dudarik.

## Saldu, mailegatu, oparitu, trukatu

Erabiltzaileak erregistrau egin beharko dira [www.arratiatruke.org](http://www.arratiatruke.org)-n, eta ostean, sartu ahal izango dabe iragarkia zer gura daben azalduz. Hau da, zeozer saldu, mailegatu, oparitu, trukatu, erosi edo konpartidu gura daben esanez. Horretarako, webgunean agertuko da, pausoz pauso hori zelan egin eta gura izan ezker, argazki bat be sartu ahal izango da.

"Gure webgunea euskeraz eta gazteleraz egon arren, iragarkiak ez dira itzuliko: euskeraz ipini ezker euskeraz agertuko dira eta gaztelaniaz ipini ezker gaztelaniaz" azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen Agenda21eko teknikariak.

Erregistretan diranak iragarkiak ipini eta iragarkiak ipini daben besteakaz kontaktuan ipini ahal izango dira. "Gainera alertak be egongo dira eta holan batek bizikleta bat eskuratu gura badau, beste batek bizikletearen iragarria ipinten dauanean mezu bat

Konsumo jasangarria  
bultzatzeko  
mankomunidadeak  
[www.arratiatruke.org](http://www.arratiatruke.org)  
gunea abiatuko dau

Denpora bankuetan,  
denpora kronologikoa  
da balio unidatea



Truke azoka bat.

jasoko dau. Baita, hilean behin, nobedadeak jasoten dauzan buletin be" gehitu dau teknikariak.

Iragarkiok kategoriaka be sailkatuko dira, bilatzaileak errazago topetako: antigoalekoak, bildumazaletasuna, kirolak, informatikoa edo pelikulak, barbarako.

## Trukea, diruarena orde

Sistema kapitalisteari kritika moduan, edo kritikea egin ba-

rik zaborra murrizteko edo krisi sasoiari aurrera ateratzeko erreminta moduan, trukearen inguruko mobimentua zabaltzen doa mundu zabalean. Mobimentu honek akaso garapenik handiena Argentinan lortu eban 2001. urtean. Urte haretan, jentea diru barik geratu zan Fernando de la Ruaren gobernuak *corralitoa* ezarri ebanean. Izan be, *corralitoa* dirua erabiltearen murriz-

ketea izan zan, bankuak eta aurrezki kuxak ez eutsien jenteari kontu korronteetan eukan dirua ateratzen ixten. Hori dala eta, trukea antolatuten hasi ziran Argentinan. "Trukearen klubak sortu ziran, zerbitzuak eta gauzak alkar trukatzeko. Arrakasta handia euki eben klubok, eta klub txikiak izatetik erraldoi izatera heldu ziran, lau mila partaide zituenak be egon ziran" azaldu

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

**Lehendakari Agirre, 8 behea**  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**ellauri**  
HOTELA

Naturaz erabiltzen

Landa Turismoa  
Erreparatu Zerbitzuak

Alfuzta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)

**ASESORIA**  
**Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**expert** **ARRATIA**

E-posta: [expertarratia@cordevi.com](mailto:expertarratia@cordevi.com)  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Gure bainuetxeaz eta bere ur mineral medizinalaz, naturaz eta ondo izate hutsaz goza ezazu.

Zirkuitu termala, fisioterapia, depilazinoak, masajeak, estalkiak, arpegikoak, Garra Rufa arrainak, binakako tratamenduak...

**Balneario Areatza**  
Areatza

Askatasuna 50, bis - 48143 Areatza  
94 657 54 50 · [www.balnearioareatza.com](http://www.balnearioareatza.com)  
[balnearioareatza@gruposasoibide.es](mailto:balnearioareatza@gruposasoibide.es)





Denporearen bankua be eskeiniko da.

deutso BEGITURI horren barri jakiteko Argentinara joan zan Iker Yurrebasok.

Gizarte zati handi bat egon zan truke mobimentuan sartuta urte hareetan. "Baina taldeak hain handiak ziranez eta trukea konfidantzan oinarritzen dan ez ahultzen hasi zan konfidantzea eta, konfidantzeagaz batera, taldeak. Gainera, erakundeen aldetik boikot antzekoa egon zan eta azkenean desagertzen joan ziran. Gaur egun ez da apenas ezer geratzen" dino Yurrebasok.

Diruan oinarritutako sistema ordezkatzea gatxa da baina hondakinak murrizteko sano eragingarria izan daiteke trukea, jentek erabilten badau.

### Denporearen bankuetan denporea da dirua

Webguneak eskeintzen dauan beste zerbitzu bat, denporearen bankua da. Denporearen bankuan ez da dirurik behar. Besteak egindako zerbitzuak norberak egindako zerbitzuak ordainduten dira, baina ez dago zertan persona horregaz egin, hirugarren bategaz izaten da. Matxalen Legarretak BEGITURI azaldu deusaren arabera, normalean, denpora bankuok talonario bategaz eta trukatzan diran aktibidade zerrenda bategaz funtzionetan dabe. Eta araututa egoten da zenbat denpora hartu ahal dan eta zenbat emon, ez egoteko alde handirik.

Legarreta soziologia irakaslea da EHUn eta denpora politikak ikertu dauz bere doktorego-tesian. Denpora politiken barruan, denpora bankuak sartzean dira. "Denpora bankuak perspektiba lokal batetik eginda dagoz eta alkartrukea bultzatzea da honeen asmoa. Alkarteetatik eta erakundeetatik bultzatutako esperientziak dira, baina erakundeetatik laguntza jasoten dabe eta nire ustez laguntza horregatik dagoz bizirik" dino Legarretak.

Denpora bankuak AEBn sortu ziran 1980ko hamarkadan eta Europan Italia izan zan aitzindari, PCiko andrak 1980ko hamarkadearan amaieran bultzatu egin zituenean bankuok. Estaduan, Bartzelonan sortu ziran lehenengo denpora bankuak eta gero leku askotara zabaldu ziran. Izan be, bankuok alde on asko ditue. Horreetako bat trukea eta pertsonen arteko hartuemon solidarioak bultzatzen dituela da, baina ez da bakarra. "Merkadutik kanpo dagozan pertsonak eta perspektiba ekonomiko batetik gizartean ez-produktiboak diranak beste era batera berdefinduten dira denpora bankuen bitartez, ze mundu guztiak dauka zeozer emoteko eta zeozer hartzeako premia. Autonomia-dependetzia binomioa apurtzen da holan" dino soziologia irakaslea.

"Gainera, jarduera desbardinak maila berean ipinten ditu eta jardueron arteko desbardin-

tasunak eta hierarkiak apur bat neutralizatu egiten dira. Bardin balio dau umearen bila joateak edo errekaduak egiteak, zein

berbarako, baloretan dira".

Dana dala, alde ilunak be badi-tue denpora bankuak eta kritika egiten deutse Legarretak "Den-

da unidate horrek ahalbidetzen dauala jarduera guztiak bardin balio izatea, baina horren azpian dagoana zera da: naturalizatu egiten



Baserriko produktuak konsumo taldeak gestionaiko ditue.

errentaren aitortpena egiteak edo lege aholkularitza puntuala emotek. Gizarte mailan desbalarizata dagozan jarduera batzuk, etxeko lanak eta zaintza,

denpora bankuak merkaduen funtzionetako moduari kritika egiteko sortu ziran baina erabilten daben denpora-unidate merkataritza-unidate da. Ez da neutroa. Egia

dogula denporea ulertzeko modu bat. Eta modu hori merkadu kapitalistegaz batera sortu zan eta merkadu kapitalistek aurrera egin ahal izateko giltza izan da".

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

## JANDONIZ

nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

## Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behea - 48.140 Igoerre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com



## FUTBOLA

## Dana bardin

## Maialen Egileor

Lemoak jaitsiera postuetan jarraituten dau oraindino be, azkenengo bi partiduak galdu egin dauz eta, 0-1 Gimnasticaren kontra eta 3-1 Osasunaren aurka. Holan, hamazazpigarren da sailkapenean 9 puntugaz.

Arratiako neskek eta mutilak be bardin segiduten dabe, baina euren egoereak ez dauka zerikusirik Lemoako enagaz. Bai batzuk eta bai besteak irabazi egin dabe azken bi jardunaldietan eta lehenengo dira sailkapenean. Neskek 1-0 irabazi eutsien Iurretako taldeari eta 0-2 Enkarterriko neskei. Esan dogun moduan, lehenengo postuan dagoz 15 puntugaz. Mutilak be lehenengo dira 21 puntugaz, Fruizeri 3-0 eta Galdakori 1-2 irabazi eta gero.



Arratia futbol taldeko neskek lehenengo dira sailkapenean.

## TRONTZEA

## Etxebarria eta Astondoak errekorra

## Irati Urien

Julen Etxebarria eta Igor Astondoak irabazi eben Getxon Bizkaiko Trontza Txapelketa. Denpora ona lagun, saio ikusgarria eskeini eben

parte hartzaile guztiak urri bigarrenaren 29an Getxon. Danan artetik ostera, Etxebarria eta Astondoa arratiarrak gailendu ziran, errekorra batiduz: 9 minutu eta 52 segunduan burutu eben lana.

Bigarren Arkaitz eta Oier Arana, hirugarren Ibai Arana eta Jon Loiola eta bosgarren Jaime Axa eta Jon Intxaurre izan ziran. Nesken kasuan, bikote bat baino ez egoala eta erakustaldia egin eben.

## PELOTEA

## Hasi dira Arratia-Nerbioi eta Bizkaiko klubuen arteko txapelketak

## Erredakzioa

Ikasle gitxiagogaz hasi da ikasturtea pelota eskolatan eta ikasturteagaz batera hainbat txapelketa: XXI. Bizkaiko Klubuen Arteko Txapelketa, Arratia-Nerbioi txapelketa eta Baque torneo, berbarako. Trinkete txapelketa, ostera, hasteko dago.

Areatzako pelota eskolan ez bezala, Lemoakoan, Dimakoan eta Igorrekoan ume gitxiagok emon dabe izena. Horregaitik, eskola honek zabalik dagoz ikasle gehiago hartzera eta Lemoan eskolan kaptazino kanpaina bat egingo dabe gorputz hezkuntzako orduetan klase batzuk emonda. Arduradunen ustez, futbolak umeak erakarteko gaitasun handia dauka pelotaren kalterako.

## Arratia-Nerbioi txapelketa

Areatza, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuriko pelota eskolak Arratia-Nerbioi txapelketa jokatu dabe. Txapelketa hau goiztiarrenetako da -urri lehenengoaren 24an hasi zan- eta luzeena, urtailaren 14an amaituko da, eta ostean, finalerdiak eta finalak zezeilan edo izango dira.

Txapelketa hau A eta B mailatan jokatu dabe eta eskola batzuk kategoriatan dabe. Hau da, arremetxu, umetxu, ume, gaztetxu eta gazte edo kadeteetan.

## XXI. Bizkaiko Klubuen Arteko Txapelketa

Txapelketa hau urri bigarrenaren 9an hasi zan eta abenduaren 14an amaituko da. Igorreko pelota eskola eta Dimako Txumuluxeta jokatu dabe txapelketa. Dimakoak talde bi daukaz norgehiagokan,

gazteak eta nagusiak kategorietan.

## Beste batzuk

Hileon amaituko dan Baque torneoan Dimako eskolak Gazteak kategorian pelotari bi daukaz. Eta oraindino hasi barik dagoan trinkete txapelketa Igorre, Lemoa eta Dima txapelen bat edo beste ekarten saiatuko dira.

Ostera, aitzatekoa da hilaren 26an Lemoako Pelota Eskolak Euskal Herriko Pilota Federakuntzak eta Lemoako Udalak Euskal Herriko *one wall* (gomazko peloteagaz jokatu dabe dan mundu mailako modalidadea) txapelketa antolatu dabela.

"Federatu mailan Bizkaiko banakako txapelketa urri lehenengoan eta urri bigarren bitartean jokatu da. Ohorezko senior mailan, Dani Arkotxak txapela irabazi eban. Orain bikotetako txapelketa hasi da eta Lemoako eskolak gazte, 22 urtez azpiko eta senior mailan parte hartuko dau. Bertako helburu nagusia parte hartzea da, helburu konpetitiboa alde batera ixita" azaldu deutso BEGITUri Aitor Erauzkinek, Lemoako pelota eskolako ardura-dunak.

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

**Elexalde**

Meri eta Josetxu

Pinturak (kolore guztiak)

Egur babesleak

Suteak eta behe-suak

Garbiketa produktuek

Lehendakari Agre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

**indar**

instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**Dia %**

**PEDRO AUTOSERBITZU**

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ZEKUTZE**

SABINO ARANA, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83

*Los Chopos*

neurritza egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nogue) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizioa eta fabrika Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**AKETEGIA**

**GAY & LORA**

**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

**San Miguel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DIRU BONTUTAN  
ONDASUN HIGIEZINEN  
ASIGURUTAN

Sabino Arana, 37 Plaza 94 673 11 41 - Fax: 94 673 04 05 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**axular**

kultur elkarrak

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERI ETABASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

*Pinturas Arratia*

Javi Morato

Tel. 628 443 992



## ESKALADEA

# Euskadiko txapela Itziar Zabalarentzat

Urri bigarrenaren 15ean jokatu zan Euskadiko eskalada txapelketea Gasteizeko Ariznabarra kiroldegian. Itziar Zabala dimoztarrek 18 urte arteko kategorian hartu eban parte txapela lortuz.

### Erredakzioa

Asko izan ziran Euskal Mendizale Federazioak antolatutako lehiaketa honetan parte hartu ebanak, gurean etorkizun handiko kirola dala erakutsiz. "Pozik nago emoitzeagaz eta orain gogor entrenetan jarraituko dot etorriko diran txapelketetarako. Igaz ezin izan neban Euskadiko txapelketan parte hartu, Europako proba baten egon nintzalako eta pena emon eustan parte hartu ezin izanak. Horregaitik inoz baino pozago hartu dot txapela" azaldu

deutso BEGITURI Itziar Zabala txapeldunak.

**14 urte artekotik seniorretara**  
Euskadiko txapelketa baten 14 urte arteko kategorian jokatu dala lehenengo aldian izan da aurtengoa, eta Mikel Linazisoro izan zan irabazlea kategorian honetan. Beste txapeldunak Jone Ugartemendia eta Mikel Inoriza 16 urte artekoetan, Itziar Zabala eta Ibai Isusi 18 urte artekoetan, Jon Ander Bravo 20 urte artekoetan eta Itziar Rodriguez eta Gorka Karapeto seniorretan izan ziran.



Itziar Zabala.

## RUGBYA

### Suerte txarra Zekorrak

Ainhoa Duñabeitia

Etetik kanpo jokatu eban Arratiko Zekorren talde biak, nagusiak Santanderren eta gazteak Donostian. Santoñan izan eban norgehiagokea nagusiak, baina goiko postuetan egon arren partiduan huts egin eban arratiarrak. 27-22 izan zan emoitzea.

Kadeteak okerrago ibili ziran. Donostiarrak pasada itzela emon eutseen zekortxuai, 40-5 hain zuzen be.

Urriko azken astegoienean ez zan partidurik jokatu, denakantsua euki eban. Hurrengo astean (zehazkiak 5) seniorrak etxean jokatuko dabe eta Irun RT taldea izango dabe aurkari. Kadeteak beste astegoienean libre bat izango dabe.

Ezagutu gurekin gaur, bihar eta atzoko euskal sukaldaritza

**UBIDE**  
ELKARTOKIA ↑

- Eguneko menua
- Asteburuko menua
- Koadrilentzako bazkariak
- Pintxojana
- Eta giro jatorria

www.ubide.wordpress.com

Jon Duina enparantza 1. Ubide  
Tel: 945450339

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

**Fisioterapia Zentroa Igorre**

Elxalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**

Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airebatazko sistemak - Aire zurgintza zentralizatua  
Sukak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07  
Tel/Fax 94 675 62 76  
819 736 616  
48143 Igorre Bizkaia

**NON?**

**A.M.E.**  
ARRATIKO MERKATARIEEN ELKARTEA

**IGORREN EROSI!**



## ERAKUSKETEAK

Prozesu sortzaile  
plastikoen erakusketea

Urri bigarrenaren 28an inauguratu zuten erakusketaren kartela.

## Erredakzioa

Ines Medinak 2009, 2010 eta 2011n emondako mintegietan parte hartu eban hamabi egilek, Igorreko Kultur Etxean urri bigarrenaren 28an zabaldu zuten erakusketa baten erakusten ditue euren lanak. Ascen Bango, Chus Gutierrez-Solana, Lourdes de la Cal, Maite Artabe, Maite Oyanarte, Marisol Calzada, Mari Tere Bilbao, Maxima Kerr, Mercedes G. Zulueta, Miren Bilbao, Rosa Calzada eta Txaro Otxaranen lanok zehazkiaren 25a arte egongo dira ikusgai. "Erakusketa honetan ikusgai daukaguz parte-hartzaileen prozesu plastikoak, hain zuzen be marrazke-

tea, pintorea eta eskulturearen bidez garatutako prozesuak" azaldu eban Ines Medinak, mintegietako irakasle eta erakusketaren komisarioak.

## Medinak berbaldia emon eban

Erakusketea zabalteaz batera ekitalditu bat egon zan Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Maite Artabe egileetako baten aurkezpenaren ostean, Ines Medinak hartu eban berbea hamaika pintore eta eskultore bakarraren ezaugarri nagusiak azaltzeko.

Egile guztiak euren ibilbide zein aukera artistikoak aitak sano desbardinak izan arren, erakusketak osotasun bat dauka, akaso lan asko tailer berean sortutakoak diralako.

## LEHIAKETEAK

Gabonetako  
XI. ipuin eta  
VI. Marrazki  
lehiaketak  
abian

## Erredakzioa

Zehazkiaren erdialdean, hilaren 14an, zabalduko dabe Gabonak gaia hartuta, Lemoako umeen artean arrakasta handia daukien lehiaketa bi: ipuin eta marrazki lehiaketak, hain zuzen be. Lehiaketa honeetan parte hartzean daben guztiak diploma bana emongo jakie eta euren lanak udaleko webgunean ikusi ahal izango dira. Marrazki lehiaketako sari banaketea sorpresaz betetako jai handia izaten da Lemoako neska-mutikoentzat.

Haurrentzako VI. Marrazki  
Lehiaketea

Lemoan bizi edo ikasten daben hamabi urte arteko umeak aurkeztu daiekiz euren marrazkiak lehiaketa honetara. Marrazkiak abenduaren 9ra arte entregatu ahal dira ludotekan, 16:30etik 19:30era. Gaia Gabonak izan behar da eta parte hartzean daben guztiak diploma bana emongo jakie. Gainera, aurkeztutako marrazki guztiak egongo dira udaleko webgunean ikusgai. Sari banaketea abenduan 15ean izango da ludotekan arrastiko 18:30ean.

Lemoako Haur eta Gazteen  
XI. Ipuin Lehiaketea

Lehiaketa honetako partaideak Lemoan bizi edo ikasi behar dabe eta 18 urte baino gutxiago izan. Ipuinak urtailaren 27a baino lehen entregatu behar dira liburutegian 16:30etik 19:30era. Saritutako ipuinak liburu baten eta udaleko webgunean argitaratuko dira.

## BERTSOLARITZEA

Multimedia  
eta bertso  
ikuskitzuna  
Dimako  
gaztetxean

## Erredakzioa

Zehazkiaren 4an, 21:00etan, Dimako bertso eskolako eta gaztetxeak "multibertsosaiola" antolatuko dabe gaztetxean. Bertsolariak Eñaut Intxaurraga, Iñaki Iturriotz eta Oihana Bartra izango dira eta gai jartzaileran lanetan, Dimako bertso eskolako Ibon Izak jardungo dau. Ikuskizun honetan, proiektzioak, musika eta "etorkizuneko gaiak" daukiezan bertsoak batuko dira.

Dimako gaztetxeak eskeintza kultural zabala egitea ebatzi dabe. Holan kontzertuez gainera,

antzerkia, erakusketak eta abar antolatuko ditue hemendik aurrera. "Hori dala eta, bertso eskolara jo eban ea zer egin geinkean itaunka. Eta guk saio bat baina ez ohiko formatean proposatu geuntsen. Horixe da multibertsosaiola, multimedia eta bertsoak batzean dituan ikuskizuna" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza bertso eskolako arduradunak.



Saioa iragarten dauan kartela.

## BERTSOLARITZEA

## "Peña" eta Egaña Arantzazun

## Erredakzioa

Sanmartinetako bertso afaria antolatu dau Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak hilaren 11rako, 20:30ean Montero tabernan. 19:00etan trikopotea egongo da.

Bertsotan Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña izango dira. Afari ostean otzara baten zozketea be egongo da. Sarrerak salgai dagoz Arantzazuko Herriko Tabernan eta Monteron, Igorreko Gau Loran eta Dimako Herriko Tabernan.



Andoni Egaña.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure  
etxean eta Arratia  
inguruko Hiztegia doban**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea



## BERTSOLARITZEA

# Ikasturte honetan bertsogintzea ikasiko dabe Arratiako eskoletan

Erredakzioa



**Bertsogintzea landuko dabe Arratiako ikastetxeetan.**

Bertsogintza ikastetxeetan izeneko proiektua lantzean dabil Bertsozale Elkartea Bizkaiko hezkuntza arautuko hainbat ikastetxetan. Arratian 150 ikasle baino gehiagok parte hartuko dabe proiektuan: Areatza, Igorre, Lemoa, Zeanuri, Artea eta Zeberioko ikasleak, hain zuzen be. Igor Menika eta Iñaki Iturriotz arratiarrak dabil irakasle.

Aurten, 10 eta 16 urte bitarteko 6.000 ikasletik gora izango dira proiektuan parte hartzean

dabena Bizkaian. "Urteetako esperientzia lagun, sendotuten eta zabaltzen doan proiektua dogu beraz eta aurten inoiz baino ikastetxe gehiagotara helduko da, gainera" azaldu dabe Bertsozale Elkartetik.

### Klaseko lana zabalduz

Klaseko eguneroko lanaz gainera, hainbat jardura osagarri be izaten dira ikasturtean zehar. Besteak beste, bertso saioak, irratsaioak, bertso kantaldiak zein bilbertsoak. Bertso saioen helburua bertsolaritza gune naturalean ikusita ikasleen bertsotarako motibazioa areagotzea da. Irratsaioak Bizkaia Irratiagaz lan-kidetzan egiten dira eta zementu hasi eta maiatzera bitartean astero-astero izaten da Zortziko Txikia izeneko saioa. Astean ikastetxe batek prestatzen dau saioa, gelan egindako lana uhinen bidez zabalduz. Bertso Kantaldiak, gitarrajolearen laguntzeagaz, kurso hasieratik ikasitako bertso eta kantak abesteko izaten dira. Eta, azkenik, Bilbertsoak izeneko bilduman batzean dira gelaz gela ikasturtean zehar batutako bertsoak.

## KONTZERTUA

# EuroCamerata orkestraren kontzertua Igorreko Kultur Etxean hilaren 3an



**EuroCamerata orkestraren kontzertua iragarten dauan kartela.**

Zemendiaren 3an, Arratiako Musika Eskolea eta Bilboko Koralelkararen eskutik, EuroCamerata orkestrak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean, arrastiko 19:30ean.

Erredakzioa

EuroCamerata Europako bost herrialdeetako musikari gazteak osotutako talde klasikoa da eta bertan, Bilboko Koralelkarateko batzuk dagoz. Azkenengo sei urteotan Alemania, Espainia, Frantzia eta Luxenburgotik ibili dira eta hainbat disko grabatu ditue. Igorreko kontzertuaren ostean, Bilboko Guggenheim Museon eskeiniko dabe beste emonaldi bat.

Igorren, Bach, Telemann, Mozart, Brahms, Saint-Saens, Carulli, Matos-Rodriguez eta Beethoven-en piezak joko ditue Radu Hamzearen zuzendaritzapean.

## DUNBA

# Eskola barria



**Zeanuriko ikastetxea.**

### Lehen hezkuntzako hirugarren zikloko B taldeko ikasleak

Zeanuriko eskolea txiki gelditu jaku. Ikasturte honetan 118 ikasle gara, bederatzi taldeetan bananduta.

Hainbeste negar egin ostean, Hezkuntza Sailak prefabrikatu bat ipini dau gure xibo-xiboak egoazan patioan. Eta diru gitxi dagoenez (horixe esaten dabe agintzen dabena) badirudi luze egon beharko garala egoera honetan.

Guk, ikasle nagusiok, seguruenik ez dogu ezagutuko gure eskoletan behar dauan obrea eginda. Bitartean, bertsoan, gure kejak azaldu gura doguz.

Zeanin pasatzen da hainbat gauza bitxi. Jente barrie ezin da Klase barik itxi. Eskola zelan dauen nahi dot erakutsi. Ikasle lar dau eta leku sano gitxi.

Ez dago eskubiderik a zelako plana. Kolunpioak ipinteko eukin dogun lana. Moduloak jartzeko okupatu dana. Oin ikasgelak dira lehen patioa zana.

Irakasleak dagoz berrogeita hamar. Eurikaz txoketan naz pasilloan zehar. Jolas ordu gitxi ta andereñoak lar. Ikasteko ez doguz horrenbeste behar.

Ume barriak dagoz Zeanurin hainbat. Ta ez dogu lekurik gauzen guztiontzat. Hor doa eskaria gure daurienantzat. Benetan behar dogu eskola barri bat. (Maritxu nora zoaz doinuan).



**Ikastetxearen ondoan ipinitako barrakoaia.**



## AGENDEA

**ZEMENDIA  
IGORRE**

Prozesu sortzaile plastikoen erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan hilaren 25era arte.

**ZEMENDIAK 3  
IGORRE**

20:00etan, EuroCamerata, europar kamara orkestraren kontzertua (ikasleak). Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 4  
DIMA**

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

21:00etan, Multibertsosaiola gaztetxean. Intxaurraga, Iturri eta Bartra. Gai jartzaile: Ibon Iza.

**ZEMENDIAK 5  
IGORRE**

22:00etan, zinea *Super 8* Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 6  
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Hiru mosketariak*. 19:30ean, zinea *Super 8* Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 9  
LEMOA**

19:30ean, Jai batzordea: jaien balorazioa egiteko batzarra udaletxean.

**Mondo Flurss hilaren 12an Igorreko Kultur Etxean**

Hilaren 12an, Larrua Creaciones-eko Pako Revueltasek *Mondo Flurss* antzelanaren emonaldi bi egingo ditu Igorren. Lehenengoa 17:30ean izango da eta bigarrena 18:30ean. Bakotxean, gehienez 80 persona sartuko dira.

*Mondo Flurss 3* eta *5* urte bitarteko umeentzako antzerkia da. Antzerki bisuala da, ia testurik bakoa. Zabor boltsak manipuletan, paisajeak, animaliak, objektuak modu irudimentsu eta harrigarrian sortzean dabez akto-reak eta gaur egungo konsumoagaz jarraitu ezkereraz zer gertatu ahal dan hausnartzeko bidea emoten dau.

**ZEMENDIAK 11  
ARANTZAZU**

20:30ean Bertso afaria Montero tabernan. Bertsolariak: Peñagarikano eta Egaña. Bilduko kultur batzordeak antolatuta.

**ZEMENDIAK 12  
AREATZA**

23:00etan Jabier Mañon umorista Bixer tabernan.

**ARTEA**

Artea Kirol Kultur eta Euskera Taldeak antolatuta Villa Tondoniara (Errioxa) urteera.

**IGORRE**

22:00etan, zinea *La deuda* Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 13  
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Phineas y Ferb la película: A través de la segunda dimensión*. 19:30ean, zinea *La deuda* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

10:00etan, Nekazaritzako Elikagaien Azokea. Elizondon (futbol zelaiaren ondoan).

**ZEMENDIAK 14  
BEDIA**

Etxebizitza tasuen zozketan parte hartzeako eskaerea aurkezteko epea amaituten da.

**LEMOA**

Haurrentzako VI. Gabonetako Marrazki Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik. Lemoako Haur eta Gazteen XI. Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU  
SALTZEAN DOT**

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

**SALTZEAN DOT**

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

**SALTZEAN DOT**

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

**ETXEA SALGAI**

Areatzako Askatasuna kalean 125 m<sup>2</sup>ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

**AUTORAKO AULKIA SALGAI**

Autorako segurtasun aulkia salgai. Römer Duo Plus-Isifix. Group 1 (9/18 Kg). Grisa eta baltza. Oso egoera onean. 626 385 581.

**DANERIK  
APARTAMENTUA ALOKAIKUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

**AURRESKUA IKASI GURA DOT**

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Udalak emondako bina sarrera *Super 8* filmerako.**

Mari Jose Lekue (Igorre)  
Ainara Aranzeta (Areatza)



2

**Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.**

Gorka Menendez (Galdakao)  
Begoña Bernaola (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   |   |   |   |   |   |   |
| 4 |   |   |   |   |   |   |   |
| 5 |   |   |   |   |   |   |   |
| 6 |   |   |   |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |   |
| 8 |   |   |   |   |   |   |   |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   |

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Lokaztu, lohitu. 2.- Otoitz.  
3.- Letra bat. Jainkoaren izenean  
emoten dan berba. Lehenengo  
bokala. 4.- Selenioa. Nitrogenoa.  
Zidarra. 5.- Argitasun. 6.- Letra  
izena. Letra bat. Erbtoa. 7.- Uranioa.  
Taut. Letra bat. 8.- Itsas arrain bat.  
9.- Ostirala.

### GOITIK BEHERA

1.- Lotsa izan. Boroa. 2.- Edabe  
garbi. Adizlaguna. Birritan, baratze  
landara lekaduna. 3.- Octavio...,  
mexikar idazlea. Letra bat. Birritan,  
erreskadana. 4.- Ikusiezina. 5.- Batez  
be Iparraldean, egiazko. Bokala.  
Nondik atzizkia. 6.- Tori, hartu egik.  
Emakumezkoen izena. Persona  
izenordaina. 7.- Bokala. Azaldua.


|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | V | K | I | R | V | B | 6 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| G | I | S | B | E | S | 8 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |
| T | E | R | T | U | T | 9 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |
| A | R | C | I | N | E | 5 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |
| A | G | N | S | E | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |   |
| A | N | Z | I | N | 3 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |   |
| O | R | A | Z | O | 2 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |   |
| L | U | P | E | Z | 1 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |   |
| 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |   |

Topau Egiptoko zazpi jaungoikoren izenak.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | R | T | E | K | O | L | I | M | A |
| S | A | I | L | U | N | E | R | I | Z |
| I | S | D | H | A | T | O | R | P | E |
| T | U | T | H | O | T | A | E | O | G |
| A | O | G | K | I | R | A | T | U | Z |
| D | S | O | J | E | J | U | Z | X | O |
| U | I | S | I | S | T | H | S | A | N |
| K | R | E | I | K | A | E | T | O | R |
| O | I | K | E | B | A | S | J | G | A |
| A | S | Y | O | L | U | R | T | A | H |
| L | X | A | X | O | M | N | A | T | E |
| G | O | S | A | K | O | L | A | K | O |
| U | S | D | I | M | I | N | O | Z | A |
| T | H | I | A | N | Z | O | K | E | L |
| O | P | E | R | A | T | E | I | K | U |

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte  
• Bobak • Ray • Aranda  
• Akor • Guksaktr • Arandiga  
• Gaudole • Leiz • Maspana  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA BUKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Bilbonak: A1, A, BTE, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tlfnoa: 94 673 71 32  
98140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
Karmela eskola zein erdara  
Gorbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
Tlfnoa: 94 631 54 31, Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urroa@euskalnet.net

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig.Mendieta,nº 3,48530 LEMCIA, Bizkaia  
Tel.090-482 839-000 099 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK  
**ARRATIAKO TALDEA**  
Arazoak alkoholagaz?  
Arazoak badaukazuz,  
lagundu ahal zaitugu

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tlfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Ennea**  
GARRAIOAK  
Ilugikorra 629 465 335  
Irantze ezina, 12 LERROK  
Tlfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA  
SOLARIUM  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

Igorre  
BIZTAR EGUNAK: 690 139 044  
epuztasun 20etatik 22etara  
Udaletxeko arduratzen  
EPA-ko lokalak

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante  
Montero  
Eguneko menua  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra  
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653



## AIALA BIZKARGUENAGA

**"Coca-Colak daukan monopolioagaz harritu egin gara"**

Aiala Bizkarguenaga igorretarra bere mutil-laguna dan Kepa Izagirre donostiarragaz munduan zehar biajean ibili da bederatz hilabetean.

Clara Luja

**Zenbat lekutan eta zenbat denpora egon zinien biajetan?**

9 hilabete pasau genduzan munduari buelta emoten. Hasierako asmoa 12 hilabete pasatea izan bazan be, arazo familiar bat izan genduan eta Euskal Herrira lehenago bueltau behar izan ginan. Pena handia izan da baina esperientziak merezidu izan daukela pentsetan dogu. Bederatzi hilabete honeetan lurralde piloak ikusi dogu, AEB, Mexiko, Guatemala, Nikaragua, Costa Rica, Honduras, Panama, Ekuador, Argentina, Peru, Bolibia, Txile, Zelanda Barria, Thailandia eta Laos. Costa Rica, Honduras, Panama, Ekuador eta Peru herrialdeetan denpora gixiago pasau dogu, besteetan, 20 egunetik gora egon gara.

**Zelan eta noz bururatu jatzun hain biaje luzea egitea?**

2008. urtean kuadrilako bikote batek munduari buelta emongo eutsala komentau euskunear, guk be gauza bera egitea pentsetan hasi ginan. Hasieran amets bat zana errealidade bihurtu zan. Lehenengo gauzea munduko mapa bat erostea eta dirua aurrezten hastea izan zan. Gero lurraldeak aukeratzeko hasi ginan. Biajea, Ameriketako iparraldetik hasia

ebatzi genduan. Ostean, hegoaldera joan ginan, Patagoniara. Ertamerikan gengoza, Amerika bakarrik bisitauko genduala pentsau genduan, baina Patagoniara heldutakoan, oraindino denpora eta diru aldetik nahiko ondo genbilzanez, Zelanda Barria eta Hego Asiar pasatea pentsau genduan, beste errealidade batzuk ikusteko.

**Lanagaz bateratzeko zelan egin zenduen?**

Gure helburua biaje luze bat egitea zan. Biok beharrean gengoza. Kepak, nahiz eta lanpostu ona euki beharra ixtea ebatzi eban. Nik, berriz, bueltarako lana nahiko lotuta itxi neban. Argi geunkan holango biaje batek, gure bizitzako estabilitatea zuzterretik aldatuko ebalan baina ametsak betetzeko gauza asko alde batera itxi behar dira: lan finkoa, familia eta lagunak.

**Zelango garraioak erabilten zenduzen leku batetik bestera joateko?**

Batez be autobusak erabili izan doguz. Holango biaje luze bat egitean, garraio ekonomikoaren erabilten doguz, hau da, bigarren edo hirugarren mailako autobusak, bertakoak erabilten dituenak, erosotasun eskasekoak baina errealidadean murgiltzen

zaituenak. Hartutako garraio bitxien artean, bat aitatzekotan, Nikaraguan Com Island-era eroan ginduan itsasontzi merkantila egongo litzateke. Com Island honetara hegazkinez eta itsasontziz joan daiteke. Guk, janaria, animaliak, eraikuntzako materialak... eroaten zituan itsasontzi merkean joan ginan. Hegazkinez ordu eta erdiko biajea dana, 12 orduko biaje pisutsu, usaintsu, deserosoa izan zan, baina, erreal eta bertako jentegaz berba egiteko aukerea emon euskuna.

**Herrialdeen artean ze desbardintasun ikusi zenduzen?**

Ufff, gatxa da berba gixitan esatea... Zeozer esatearren kontinenteen arteko desbardintasunak egongo leitekez. Hego Asian, dana jentez, kotex, zaratez, usainez motorrez beteta dago, Zelanda Barria, barriz, jente gixi, isilatasuna eta ordena dira nagusi.

**Zer izan zan gehien harritu zinduzana?**

Hego Asian, (Thailandia eta Laos) jentearen eskuzabaltasuna, alaitasuna eta jatorritasuna. Ezer gixigaz pozik eta zoriontsu bizi dira. Beste errealidade bat ikusi dogu, bizitza lasaitasunez, patxadaz, estres barik, momentua gozatzen dabe leku askotan, eta horrek hausnarketea eragin deusku: gure eguneroko bizitza estresantea, azkarra, lagunak egoteko denpora barik, baina danetarik eukinda ala euren gurago dogu? Zelanda Barria, kamino bazterretan fruta postuak egoazan. Honeetan, zuk frutea hartu eta kutxa baten dirua itxi behar zenduan. Imaginetan dozu hori Aratiako kaminoetan? Inork itxiko eban dirurik? Konsumoaren aldetik, lurralde guztietan, Coca-Colak daukan monopolioagaz harrituta geratu gara. Lurralde askotan, ume txikiak ura emon beharrean, Coca-Cola emoten deutsee. Hainbat erlijio eritu indigenetan be gorputzetik espiriturak kanporatzeko (korroskaden

bidez) Coca-Cola erabilten dabe.

**Zein izan da atzerrian izan dozu arazorik handiena?**

Ez dogu arazo handirik izan, ezta ikusi be, baina entzun bai. Gauean ez ginan asko ateratzen eta ateratzekotan, segurtasun neurriak hartzean genduzan. Neuri logikoak; diru gixi atera, kamarak etxean itxi, jentea egoan lekuetatik ibili... Izan dogun arazo larrienak, Peruko poliziagaz izan ziran. Bitan sartu ginan Perura eta aldi bi horreetan, aduanan, poliziagaz arazoak izan doguz. Lehenengoan, ibuprofeno pastila batzuk lapurtu euskuelako eta erreklamau genduzalako, eta bigarrenean, dirua lapurtu gura izan euskuelako. Ingelesa ez menperatzeak hainbat lurraldetan hartuemon egokiak ez izatea ekarri dau eta hori azken finean, arazo bat izan dala pentsetan dogu.

**Pasadizoren bat kontau ahal deuskuzu?**

Mundua pentsetan doguna baino txikiagoa dala. Thailandiako Chiang Rai herriko inguruak ezagutzen egun osoa pasau eta gero ostatura bueltau eta Euskal Herriko bikote batezagaz egin genduan topo. Neskea eta biok, harituta gelditu ginan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan gela berean alkarregaz ikasitakoak ginalako. Orduetik aurrera alkarregaz biajetan jarraitu genduan etxera bueltau behar izan ginan arte.

**Zein izan da esperientziaren alderdirik onena? Eta txarrena?**

Onena biajea bera. Alde batetik, mundua eta munduan dagozan errealidadeak ezagutzeko aukerea izan dogu; bestetik, gure errealidade kapitalista eta konsumistaz aparte, gure gizartean galduta daukaguzan balore eta jokaera asko (eskuzabaltasuna, imbarre jatorrak ikusteko aukerea, zaharrakako errespetua...) oraindino beste lurraldeetan topetako, sentiduteko eta ikusteko aukerea izan dogu. Gure bikote hartuemonetarako be onuragarria izan da. Azken finean, 9 hilabetez 24 ordu alkarregaz pasateak, bestea hobeto ezagutzeko aukerea emon deusku. Esperientzia txarrena ez, baina nekagarriena herri edo lekuz aldatzen zaranean izan da: motxila barriro egin, autobus geralekura joan, autobusa betetzen dan arte etxon, beste herrira heldu eta han lo egiteko leku baten bila hasi...

**Barriz egingo zenuke? Barriz egiteko asmorik?**

Bueltau aste bira barriro biajetako gogoia izan genduan, azken finean biziteko beste modu batera ohitzen zara, baina familiak, hemen behar ginduzan. Biajean, bikote asko ezagutu doguz umeakaz biajetan dabenak eta guk argi daukagu, etorkizunean, ekonomia aldetik ondo bagabiz, umeak daukaguzanean holango biaje luze bat egingo dogula.





# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea

Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26

48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaile  
ofiziala















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.